

Larunbat honetan izango da Bilbiko Elkartasun Eguna

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 08/05/2025

Egunean zehar ateratzen den diru guztia euskal preso politikoei elkartasuna adierazteko Zaballan egindako espetxera martxaren ondorioz jasotako 153.600 euroetako isunari aurre egitera bideratuko da.

2023ko abenduaren 30ean Euskal Preso Politikoei elkartasuna adierazi eta amnistia osoa aldarrikatzeko hainbat pertsonak **Zaballako espetxera martxa egin zuten**, ASKE antolakundeak deituta. Egun horretan, mobilizatu ziren pertsonak jazarpena jasan zuten ertzaintzaren aldetik. Lehenengo, martxa geldiarazten saiatu ziren, eta, ondoren, kontrol bat ezarri zuten irteeran, ehun pertsona baino gehiago identifikatuz. Kontrol horretan, indar errepresiboek nahiko modu bortitzean jardun zuten manifestari batzuk heriotzez mehatxatuz eta beste batzuk jipoituz. Sei hilabete beranduago, Eusko Jaurlaritzak 128 pertsonen 1.200 euroko isun bana ezarri zien moza legea aplikatuz, **osotara 153.600€-ko zigor ekonomikoa eskatuz**.

Guzti hori kontuan hartuz, "ELKARTASUNA EZ DA DELITUA" plataforma sortu zen jarrera horiek salatzeko helburuarekin. Plataforma horretatik ekintza ezberdinak burutu dira urte honetan zehar isunei aurre egiteko nahian. Bide horretan, hurrengo larunbatean, maiatzak 10, Elkartasun Eguna antolatu dute Bilbin(Bizkaia). Eguerdiko 13:00etan hasiko da egitaraua eta Marianitada eta umeentzako grafiti tailerra egongo da herriko plazan. Ondoren, arratsaldeko 16:00etan, Eskizopintxadiskos-ren pintxada egongo da. Bukatzeko, bi kontzertu egongo dira. 19:00etan hasiko da lehengoa eta Deiedra Rebel Folk joko du. Segidan, gaueko 21:00etan zehazki, Policiano Antirrepresivo Mixerren txanda izango da.

<https://eh.lahaine.org/larunbat-honetan-elkartasun-eguna-antolatu>